



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**

DURANGALDEKO IBAIZABAL IKASTOLA [dokumentu hau 2024ko uztailean eguneratu zen]

---

**Ikastetxearen kodea:**

015220 eta 015572

**Data:**

2023(e)ko apirilaren 25(a)

---





# 1. SARRERA

## **Ikastetxearen testuingurua**

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Ibaizabal Ikastola ez da “sorburu”, haurtzarora, haurtzaroko ikastola; ez da “helmuga”, helduarora, mundua; Ibaizabal Ikastola biak lotzen dituen zubia da, pausoa ematen laguntzen diguna. Ibaizabal Ikastola derrigorrezko hezkuntza-etapak Batxilergoarekin eta goi-mailako Lanbide Heziketarekin zubia egin eta lotu asmoz orain hogeitun urte pasa Bizkaiko ekialdeko ikastolek sortutako proiektu sendoa da.

Historiaren eta istorioen gordailu da Ibaizabal Ikastolaren egoitza. Eraikinaren zati bat errota izan zen antzina, eta enpresa askoren egoitza harrezkero urteetan zehar. Egun, bere hormetan, Bizkaiko Sortaldeko berbaera desberdinen oihartzuna ehotzen da egunero. Izan ere, Lekeitioko, Ondarroako, Galdakaoko eta Durangaldeko ikasleak hartzen ditu Ibaizabalek, besteak beste.

Adituek eta agiriekin diotenez, Ibaizabal Ikastola kokatuta dagoen garai bateko errota zahararen balio handiena bere garairako erabiltzen zuen teknologia aitzindaria izan zen. Ibaizabal Ikastolak ez du izaera hura ahaztu, eta jasangarritasun-diplomaren jabe izatea, Bai Euskarari Ziurtagiria maila gorenean izatea, kudeaketa aurreratuaren irizpideei jarraikiz lan egitea egunerokoan, heldutasun teknologikoan zertifikatuta egotea... berezko berritzailetasunaren eta bikaintasunaren isla dira gaurkoan. Horren guztiaren emaitza, berriz, ikasleen prestaketa-maila bikaina da, eta esan berri den horren adierazgarri unibertsitatera sartzeko proban gure ikasleek irakasgai irakasgai eskuratzen dituzten nota onak dira, esate baterako.

> Estatus juridikoa: Irabazi-asmorik gabeko kooperatiba da Durangaldeko Ibaizabal, Eusko Jaurlaritzak onura publikoko izendatuta dauka eta Bizkaiko Foru Aldundiak lehentasunezko zatitza izan da gure kooperatibak egiten duen jardueraren.

> Eskaintza:

.Batxilergoa: giza- eta gizarte-zientzien modalitatea, eta zientzien modalitatea.

.Lanbide-heziketa: goi-mailako zikloak Haur Hezkuntzan eta Gizarteratzean.

.Hezkuntza ez arautua. Lanerako formazioa: profesionaltasun-ziurtagiriak (sorosle izateko, enplegurako trebakuntza emateko irakasle izateko, arreta soziosanitarioan aritzeko, e.a.).

> Zergatik Ibaizabal? [ikuspegia eta baloreak]

.Gertuko ikastola garelako, gardenak eta bidaide: familia-giroko Ikastola txikia; komunikazio zuzena; orientazioa familiei eta ikasleei, taldeka nahiz bakarka; tutoretza-programa pertsonalizatua; errefortzuak. Herrigintza eta kulturagintza.

Erantzukidetasuna eta partaidetza. Ikastolarekiko asebetetze orokorra neurtzeko mekanismoek diote ikasleak eta familiak pozik direla Ibaizabalek eskainitakoarekin. Giro atseginean ikasteak eta babestuta sentitzeak hezkuntza-aurrerapena baldintzatzen duela badakigu, eta gure alde jarria dugu hori Ibaizabalen. Gure ikasleak ditugu bermerik handiena.

.Ikaslea erdigunean dugulako, emaitza akademiko onenak eskura dituzten: diren bezalakoak direla, ikasleen gaitasunak muturrera eramateko. Ikasgaien aukeragarritasuna, emaitzak hobetzeko egokiera, laguntza eta aholkularitza. Ikasleek elkar ezagutzeko harrera-plana eta dinamikak. Promozio-datu bikainak (ikasle guztien premiei erantzuteko borondatea); Batxilergoa gaitzidutako kopuru altua; Unibertsitatera Sartzeko Proba (lehenagoko Selektibitatea) gaitzidutako dutenen ehunekoa eta batez besteko nota altua; espedienteak...

.Ikastola berritzailea delako, pertsona eta profesional erabat prestatuak formatzeko: erronka errealean oinarritutako hezkuntza praktikoa (Ikaskidetzaren metodologia); esperimentazioa ikastetxeetan umekin eta lan-mundurako sarbidea (Haur Hezkuntzako goi-mailako zikloan); diziplinartekotasuna; langileen etengabeko formazioa; kompetentziak; e.a.

.Ikasle euskaldun eleaniztunak hezten ditugulako: “Trukaldi” programa euskara Nafarroan hauspotzeko; “Guka” herriko euskalgintza-bilgunearekiko lankidetzaren; Oxford azterketagune ofiziala da Ibaizabal; atzerriko ingeles-bekak; “Juvenes Traductores” ekimena (gaztelania eta ingelesa) hizkuntzekin jolastu eta literatura-itzulzailearen figurara hurbilpena egiteko; “Etwinning” proiektua frantseseko irakasgaietan, Frantziako ikasleekin proiektu partekatua; e.a.

.Hori eta askoz gehiago ere badelako/bagarelako. Ibaizabal+ (zerbitzu osagarriak): taberna, ostaldea, aterpetxea, gimnasioa (muskulazio-gela, sauna, kirol-ikastaroak, azpiegiturak...), aparkaleku pribatua, jantokia, ekintzak (irteerak, tailerrak, hitzaldiak, ate irekiak, antzerki-eskola, jaialdiak, Irakurri eskola-aldizkaria, Ateneoak eztabaida-foro informalak, auzolan-egunak familiek...; eskola-orduz kanpo ere bai) eta garraio-zerbitzua Durangotik kanpokoentzat.

Pertsona konprometitua eta puntako emaitza akademikoak eskuratu(ko) dituztenak dira Ibaizabal Ikastolatik irtengo direnak.

Ibaizabal Ikastola

Intxaurren kalea 54

48200 Durango

94 621 58 77

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus

## HELBURUAK [bisioa eta misioa]:

### ESTATUTUAK

Durungaldeko Ibaizabal Kooperatiba-elkartearen Estatutuek honako helburua diote esleitua erakundeari:

- Euskal Herriko pertsona guztiei, jaiotzen direnetik eta adin-mugarik gabe, hezkuntza-zerbitzu anitza eskaintzea, zuzenean edo beste erakunde batzuekin lankidetzan jardunda.
  - Enpresa- eta hezkuntza-mailan ahalik eta eragingarritasun handiena lortzea, interes orokorrerako balioko duten zerbitzu osagarriak eskainita. Ildo horretan, segidako sekzioak edo sailak bereizten dituzte gure Estatutuek: hezkuntza-sekzioa (arautua eta ez arautua) eta Errota sekzioa (kafetegia, aterpetxea, ostatua, gimnasioa...).
- Estatutu horien berorien arabera, betekizun nagusiak, berriz, beste hauek dira, hitzez hitz:
- DBHren ondorengo hezkuntza garatzea eta eskaintzea: Batxilergoa, hezkuntza profesional ez arautua eta formazio-zikloak.
  - Euskara arlo profesionalean eta lan-munduan sustatzea.
  - Kooperatiba-kultura sustatzea.

### LEGERIA

- Batxilergorako indarrean den Dekretuak dio ikasleei prestakuntza osoa, adimen- eta giza -heldutasuna, eginkizun sozialak garatzea eta bizitza aktiboan erantzukizunez eta gaitasuna izanik sartzea ahalbidetuko dizkien ezagutza eta trebetasunak ematea dela Batxilergoko etaparen azken xedea.
- Baita ikasleak norbanako gisara, jendarteko biztanle aktibo bezala eta natura zaintzearekin eta garapen iraunkorarekin konpromisoa izateko neurrian helduen bizitzari ekiteko gai izateko prestatu behar dituela ere.
- Ikasleak euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren oinarriko gaitasunak lortzeko gaitzea, eta bizitza osoko ikaskuntza iraunkorra garatzeko gai izan daitezen formatzea Batxilergoaren helburu orokor dira Dekretuaren arabera, azkenik.

\* Lanbide-heziketarako lege zehaztuta dauden helburuen oso antzekoak dira goian zerrendatutako horiek. Horiez gain, Lanbide-heziketaren helburua ikasleak lanbide-eremu jakin batean jarduteko prestatzea da, eta prestateta balioaniza ematea, bizitzan zehar gerta daitezkeen lan-aldaketetara egokitu ahal izan daitezen. Batxilergorako esandakoaz gain, Lanbide-heziketak produkzio-sistemaren kualifikazio-eskaerei erantzuteko moduan prestatu behar ditu ikasleak.

\* Lanbide-heziketa espezifikaren metodologia didaktikoak zientzia-, teknologia- eta antolaketa-edukien integrazioa sustatuko du. Era berean, bere kabuz ikasteko eta taldean lan egiteko gaitasuna ahalbidetuko dio ikasleari.

MISIOA: Ibaizabal, inguruko ekonomia eta hezkuntzaren suspertzaile izateko sortu zen, baita hezkuntzan eta lan-munduan kultura berri bat zabaltzeko asmoz ere. Eta euskara komunikatze-hizkuntza izanda, betiere. Ikasleei heziketa egokiena eskaini nahi diegu, pertsona moduan beren osotasunean heldu eta garatu daitezen. Ikastola bazkideekin eta ikastolen taldearen baitan jardunda.

### Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Gailuak: Irakasle bakoitzak Windows ordenagailu eramangarri bana dauka, Ikastolak utzita (2022an erositako ekipoak dira). Irakasle ez diren lankideek ere Ikastolaren jabetzako ordenagailua dute, eramangarria nahiz finkoa.

Horiez gain, ikasleek hainbat ordenagailu dituzte Ikastolan beren esku. Windows edo Chromebook dira, eramangarriak nahiz finkoak. Guztira 175 gailu inguru dira (lauzpabost ereduak). Gailu hauetako batzuk ikasleei etxera eramaten uzten zaie (ordenagailua etxean ez duten 40 bat ikasle dira ikasturte honetan), lagapen-prozedura bat jarraituta horretarako.

Geletako ekipamendua: 2022ko irailean aldatu egin dugu ekipamendua; gela guztietan irakaslearentzat ordenagailu finkoa izatetik, nor bere portatilarekin joatera pasatu gara, hala seguratsuna hobetu, materiala prest eraman, e.a. hobetu dugularik. Ikasgela guztietan proiektoreak eta bozgorailuak daude. Ikastolak 2 arbel digital ditu, eta 3D inprimagailua ere bai.

Interneterako konektibitatea dago Ikastolaren barne- zein kanpo-espazio guztietan. 2023ko urtarrilean estaldura-sistema osoa egokituko da, batetik, konexioa hobetzeko eta, bestetik, gaur egungo sare-kopurua murriztu eta erreferentzia bakarrera bateratzeko. Ikasgela guztietan kable-sarea ere badago. Dena den, kablea irakasleari bideratuta dago eta ikasleek, oro har, wifia erabiltzen dute.

Firewall eta segurtasun-mekanismoak ditugu ezarrita. Ikastolako langile-taldeak zerbitzariaren kargu egiten du lan (dokumentazio estrategikoa, egonkorra...), baina baita lainoan biltegitutako edukiarekin ere (etengabe eta nonahi eskuragarri izan nahi den informazioa, ikasleekin partekatzen dena...).

Informazioaren segurtasunerako praktika onak ditugu ezarrita Ibaizabalen: aldizkako pasahitz sendoak, segurtasun-kopiak, antibirusa, baimendutako softwarea soilik, pribilegiarik gabeko erabiltzaile-rolak (ez administratzaile), nabigazio segurua, blokeatze automatikoak, baimen-sistema sarbideen jarduera kontrolatzeko, e.a.

Ikastolak bere lan dozentea egiteko hainbat plataforma eta zerbitzu digital erabiltzen ditu. Gestio-aplikazioei dagokienez, Alexia da nagusi. Ikasleei begirako eskoletarako, berriz, Saioka, Moodle, Google Classroom eta antzekoak erabiltzen ditu.



Informatika-zaintzarako, kanponko enpresa aditua du kontratatuta Ikastolak. Zaintza hau eragingarriagoa izan dadin, enpresa horrek teknikari jakin bat dio esleituta Ikastolari, hala, Ikastolaren informatika-antolaketa ezagutza osoa duen pertsona bat egotea bermatzen da, eta hari bideratzuen zaizkio zuzenean intzidentzia, eskaera eta proposamen guztiak, besteak beste. Halaber, pertsona hau arduratzen da mantenu prebentiboaz eta mantenu zuzentzaileaz, baita izaera pertsonaleko datuen tratamendua babesteaz ere, Zuzendaritza-taldearekin batera.

>>> Gailu digitalen erabilera-araudia:

Legez hala dagokiolako, 2023/24 ikasturtean diagnostikoa egin da eta azterketa, 2024ko irailetik bertatik, Ibaizabal Ikastolan ikasleen bereziki mugikorrek nola, noiz, non eta zertarako erabiltzeari dagokionez. Honako ataletan banatuta egin da irakurketa:

Arautegiaren MARKO LEGALA, hau da, zein dekretu betetzeko sortu den.

Arautegiaren MARKO PEDAGOGIKOA. Ikastolaren irakurketa propioa, marko legala bermatzeaz harago, Ikastolak bere hezkuntza-proiektuarekin lerrokatzen den eta berau indartzeko balio izango duen dokumentua izan dadin aipatu araudi hori. Gailu eta teknologia digitalen erabilerari dagokionez, ikaslearen ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN azalpena.

Ikastolaren eremuan eta ordutegian mugikorren erabilerarako ezarritako NEURRIEN azalpena.

Mugikorren ERABILERA ETA JARRERA DESEGOKIEN SAILKAPENA ETA ARAU-HAUSTEEN ONDORIOAK.

Labur azaltzeko, 2024/2025 ikasturtetik aurrera, Batxilergoko ikasleek ezingo dute gailu digitalik erabili Ikastolaren barruan, horretarako baimen espresua eman ez badie irakasleak (korridoreetan ere ezingo dute erabili). Ikastolaren kanpoko espazioan posible izango dute erabiltzea (atsedenaldietan, adibidez). Lanbide Heziketako ikasleen kasuan, ordea, asko adin nagusiak izaki, ikasgelaren barruan ezingo dute erabili, irakasleak kontrakoa esan ezean, baina korridoreetan erabiltzeko modua izango dute. Batxilergoko ikasleek bezala, kanpoko espazioetan posible izango dute erabiltzea. Hau guztia, halere, nola ez, erabilera egokitzat jotzen den moduren barruan, eta, horrek barnebiduko luke, esaterako, izaera pertsonaleko datuen trataerari dagokion guztia, 'egokitasunaren' definizioaren baitan agerikoenetakoa den elementuetako bat aipatzearen.

## Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

### DIGITALIZAZIO PLAN BERRIA: SARRERA

Dagokigun marko legal europarrean jasotzen den bezala, informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera orokortuak, eguneroko bizitzako hainbat alderditan, aldaketa sakonak azkartu ditu errealitatearen ulermenean eta bertan konprometitzeko eta parte hartzeko moduan, norberaren nortasuna eraikitzeke eta bizitzan zehar ikasteko gaitasunetan, kulturaren eta bizikidetzaren demokratikoan, besteak beste.

Ikuspegi-aldaketa horrek teknologiaren eragin pertsonala eta soziala, eragin hori emakumeengan eta gizonengan desberdina dela eta teknologiaren, pertsonen, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremanari buruzko hausnarketa etikoak ere behar du, ikasleen konpetentzia digitalean zein irakaskuntzako konpetentzia digitalean garatuko dena.

Ondorioz, beharrezkoa da hezkuntza-sistemak errealitate sozial horri erantzutea eta gaitasun digitalaren ikuspegi modernoagoa eta zabalagoa txertatzea, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzko Europako gomendioekin bat etorriz.

Proposamenak, halaber, gure gizarteetan gertatzen ari den aldaketa digitala kontuan hartzeko beharra azpimarratzen du, aldaketa horrek nahitaez eragiten baitio hezkuntza-jarduerari. Beraz, Gaitasun Digitala garatzea funtsezkoa da irakasleak eta ikasleak agertoki berrietan moldatzeko, ikasleek XXI. mendeko trebetasunak eta gaitasunak garatu ahal izan ditzaten, eta irakasleak irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetu eta modernizatu ahal izan ditzaten. Horregatik, ikastolatan egiten diren hezkuntza-ekintza guztiek trinomio zatiezina osatzen duten oinarrizko hiru zutabe bermatu behar dituzte: pedagogia, teknologia eta gune inspiratzaileak, non elementu bakoitzak gainerakoekin duen loturagatik bakarrik duen zentzua.

Bestalde, eten digitalak (gailuetara iristeko zailtasuna eta konektibitatea) agerian utzi ditu ikasleen eta familien desberdintasunak eta gizarte- eta hezkuntza-ahultasuna. Ondorioz, guztiontzako gailuak eta konektibitatea lortzea izan da gaur egungo hezkuntza-politiken lehentasunezko helburuetako bat, kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzeko eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzeko. Ikastolaren plan digitalak, bere jardueren artean, desberdintasunak konpentsatzeko eta arrakala digitala murrizteko estrategiak jaso behar ditu, eta, horretarako, hezkuntza digitala erraztu behar du hainbat agertokitan (aurrez aurreko irakaskuntza eta urrutiko irakaskuntza), eta konektagarritasuna duten gailuak jarri behar ditu ikasleen eskura.

Azkenik, ikasleek teknologia digitalak erabiltzeko, prestakuntza egokia behar da herritartasun digitalean, teknologia horiek behar bezala erabili eta gozatzeko, eta, alde batetik, erabat, seguru, osasuntsu eta arduratsu ibiliko direla bermatuko da, eta, bestetik, datu pertsonalak eta norberaren eta besteen eskubide digitalak babestuko direla. Ikasleen garapen integralerako funtsezko alderdi horiek ikastolako plan digitalaren helburuak ere izan behar dute.

### IKASTOLAREN PLAN DIGITALA: OINARRIZKO KOKAPENA

Ikastolaren plan digitala Hezkuntza Proiektuan integratuta egon behar duen plangintza-tresna bat da, LOMLOEren artikulua bakarrean jasotakoaren arabera. "Ikastolaren hezkuntza-proiektuak, halaber, ikastolaren estrategia digitala jasoko du",

hezkuntza-komunitatearen gaitasun digitala garatzeko, berrikuntza sustatzeko eta informazio- eta komunikazio-teknologiei eta hezkuntza-baliabide digitalei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Plan hori hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartzearekin eraiki behar da, proiektu partekatua izan dadin. Era berean, aipatutako legearen hamargarren xedapen gehigarriaren arabera, larrialdi-egoeretarako Kontingentzia Planak ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala bermatuko duten neurriak jasoko ditu, eta, ahal den neurrian, murriztu egingo ditu sartzeko eta erabiltzeko eten digitalak, bai eta curriculumeko elementuak eta curriculumaren alderdi konpetenzialenak ardatz dituzten programazio didaktikoak berrikusteko aurreikuspenak ere.

Ikastolaren plan digitalak aukera eman behar dio hezkuntza-komunitateari ikastola nora iristea nahi duen ikusteko, gaur egun non dagoen ulertzeko eta egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazteko.

Orientazio horiek Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC, Joint Research Centre) garatutako Digitalki Eskumena duten Hezkuntza Erakundeentzako Europako Esparrua (DigCompOrg) kontuan hartuta egin dira.

Ikastolaren Plan Digitala bitarteko digitalen erabilera erraztu eta bultzatu behar duen tresna da, bai irakatsi eta ikasteko prozesuetan, bai ikastolako gainerako kudeaketa-prozesuetan, betiere ikasleen garapen integralean laguntzeko azken helburuarekin. Horregatik, hezkuntza-proiektuan, zuzendaritza-proiektuan eta urteko programazio orokorrean integratuko den tresna izan behar du. Gainera, ezinbestekoa da eskura dauden baliabide pedagogiko digitalen erabilerari buruzko ikastolaren ikuspegia ematea Plan Digitalari, haren aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztiek partekatutako proiektua izan dadin, koherentzia eman dezan eta teknologien erabilera gidatu dezan. Hezkuntza Proiektuaren, Zuzendaritza Proiektuaren eta Urteko Programazio Orokorraren (PGA) parte den tresna izango da.

#### IKASTOLAREN PLAN DIGITALAREN JUSTIFIKAZIOA: GOGOETA ETA PRAKTIKA TEKNOLOGIKO BATEN BILA

Ikastolaren Plan Digital berri honen diagnostikoaren lehen helburu bat, egungo irakaskuntzan berrikuntza digitalekiko dagoen jarrera aztertzea eta ulertzea izan beharko du. Jakin badakigu, gizartean aldatetak eta berrikuntzak etengabe gertatzen ari direla, baina horiek hezkuntzara egokitu behar direla, etorkizuneko herritarrak izango diren ikasleak hezteko baita irakasleon zeregin nagusia, datozen aldatetak datozela.

Azken finean, aldateta horiek guztiek eragina dute materiala, edukiak, antolamendua... bezalako esparruetan, eta aitortu behar dugu horietara egokitzeko irakasleek esfortzu gehigarria egin behar dutela. Alferrikakoak dira berrikuntza horiek irakasle-taldea aldateta horietara egokitzen ez bada, horrela nekez landuko baitituzte ikasleekin landu beharrekoak. Eta aipatutako berrikuntza digitalekiko ikuspuntua oso aldatkorra da irakasleen artean: batzuk beharrezkoak ez direla eta kaltegarriak direla pentsatzen duten bitartean, beste batzuek lagungarriak eta aberatsak direla uste baitute. Kontraesankorra gerta daiteke haurren eguneroko bizimodua baldintzatzen duten berrikuntzekiko jarrera ezkorra eta pasiboa izatea, eta esan bezala, horren zergatiaren inguruko gogoeta kritikoa egitea da gure lanaren helburu nagusi bat.

Gizartean izan den iraultza (teknologiko) eraldakorrenetariko baten testigu gara; une oro aldatzen eta berreraikitzen den gizarte baten iraultzaren testigu, eta sarri ez espresuki ongi planifikatua. Espazioa globalizatuz eta aldi berean deslokalizatuz doa; halatan, mikroistorio, mikroultura eta mikrosegundoen aroa sortu da, mikrolanetarako eta big data ekonomiarako sarbidea emango diguna.

Bien bitartean, transformazio multidimentsional bat gertatu da, globala, trans-historikoa eta multimodala. Eta azpimarratzekoa da horrek guztiak etorkizuneko gizartean gain eta hezkuntzan izan duen eta izango duen eragina. Izan ere, oin digitalen gaineko berregituraketa batera zuzentzen bada gizartea, etorkizuneko herritar izango direnei laguntzeko aukerak sortu beharko ditu hezkuntzak.

Badirudi hezkuntzaren eta gizartearen arteko binomio historikoa inoiz baino garrantzitsuagoa dela. Aspaldi adierazi zen gizarte eredu berri batera aldatzeko giltza hezkuntza prozesuetan dagoela eta bien arteko elkarrekintza ezinbestekoa dela.

Hezkuntzaren helburuetako bat zera da: etorkizunean ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko espazioak eta denborak eraikitzea. Digitalizazioaren eraginez, ordea, oso aldatkorra bihurtu da orain arte estatikoa izan den ikastearen kontzepzioa.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartu dute adimen artifizialak eta big datak, bai eta horiek susta dezaketen hezkuntza pertsonalatuak ere. Azken egitasmo gisa, proiektu honetan, ibilbide horri heltzen ahaleginduko gara: gizartetik hasi, eta etorkizunean hezkuntzan eragina izan dezaketen baliabideen azterketa sailkatuz.

Hainbaten ustez, irakaspraktikak teknologiararen beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Ikuspuntu kritiko hori, besteak beste, ezagutzak dakar, Amaia Arroyoren iritziz; «ulertu behar dugu teknologia ez dela neutroa eta gu behar gaituela (gure balioak, gure ideiak, gure jakintza) gizartearen garapena osasuntsua eta etikoa izan dadin. Hortik dator ikuspegi kritikoren beharra».

Teknologiak aukerak eskaintzen dizkigu, bai, baina arriskuak ere hor daude. Esaterako, arriskuen aurrean araudiak, jokabideak eta esku-hartzeak nolakoak izan daitezkeen ezagutu behar dugu; gertatu aurretik saihesteko edota gertatzean esku hartzeko.

Arriskuei buruzko informazioa izatea behar-beharrezkoa da; baina aukeren inguruko informazioa ere oso garrantzitsua dela deritzogu. Izan ere, teknologiararen ikuspegi positiboa landu nahi dugu ikastolaren proiektuan.

Gaur egun teknologia-erabilerarako testuinguru pedagogikoak zein diren, konpetentzia digitalak zer diren, e-learning testuinguruetarako oinarriak zeintzuk diren, hezkuntza digitalerako baliagarri diren hainbat tresna eta aplikazioren berri, teknologiak jendartean eta hezkuntzan duen eragina, hizkuntzen i(ra)kaskuntzaren eta teknologiararen arteko loturak eta berrikuntzak zein ikerketa digitalen ingurukoak bildu daitezke. Askotariko gaiak, beti ere ikuspuntu pedagogikoa ipar hartuta.

Adituen ustez, irakaspraktikak teknologiararen beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Teknologiak berrikuntza ekarri behar dio hezkuntzari, batetik, ikaskuntzan egin beharreko atazak lagunduz edo hobetuz, hots, aurrez aurreko ikaskuntzako kalitatea hobetuz eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia emanez; hau da, testuinguru digitalean zentzu handiagoa duten atazak eta metodoak bultzatuz.

Baina nola garatuko dugu ikuspuntu kritiko hori, euskal jendartean dauden arazoak aztertu eta horietako zenbait gabezia bete

gabe, nazioartean egiten ari direna kontuan izan gabe? Galdera horiei erantzuteko, ezaugarri hauek izango lituzkeen hezkuntza irudikatu behar dugu etorkizun handiko egitasmo honen hasiera honetan, online irakaskuntza eta baliabide digitalak ere kontuan hartuz: inklusioa, ubikuotasuna, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna, arreta pertsonalizatua eta euskal curriculumak implementatzeko aukera, besteak beste. Eta jakina, teknologiak dituen aukerak aipatzeaz gain, berekin dakartzan arriskuak ere kontuan izan beharko ditugu.

Eta amaitzeko, ez dezagun ahaztu "IKTak eta kompetentzia digitalak hezkuntzan" proiektua mardula izan arren, hezkuntza komunitatean partekatua eta, horregatik, irakurterraza izan behar duela. Hauxe bere beste erronka deigarria da, bere horretan.

### **Elaborazio prozesua eta lan-taldea**

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Planaren garapena Ikastolen Elkarrekin izendatutako mentore-talde batek gidatuta garatuko da. Gure mentoreak gure digitalizazio-batzordearekin lankidetzan jardungo du eta bere gidaritzapean ibiliko gara.

Gure digitalizazio-batzordeari dagokionez, buru bezala eta mentorearekiko kontaktu zuzen moduan, zuzendaritza-taldeko kide bat zehaztu da (Ikastolako zuzendaria, Iker Gómez de Segura). Pertsona honek mentoreak eskaintako informazioa zuzendaritza-talde osoari zabaltzeko funtzioa edukiko du eta proiektuaren buru eta bultzatzailea izango da, nahiz eta egitekoak garatzeko orduan, funtzioa zuzendaritza-talde osoarena izango den.

Proiektuaren planifikazioari dagokionez, mentoreak bideratutako denboralizazioari jarraituz eta eskaintako laguntza eta ereduak kontuan hartuta, ondorengo prozesua garatuko da:

1 - Egoeraren argazkia:

Urriaren zehar eta "Selfie for School" tresna erabilia, Ikastolako irudia zein den jasoko da, ikasle, irakasle eta zuzendaritza esparruan bideratu beharreko galdetegi batzuen laguntzaz. Galdetegi horien bitartez, esparru ezberdinetako errealitatearen islada jasoko da, Ikastolako etapa bakoitzeko txosten bat lortuta.

2 - Análisisa:

Azaro eta abenduan zehar, aurreko atalean jasotako txostenen analisiari ekingo zaio. Horrela zuzendaritza taldeak, etapa bakoitzeko txostena aztertu eta elementu esanguratuak identifikatu eta estamentu ezberdinen arteko adostasun mailak ikertuko dira. Guzti honen bitartez, azken pausoa, etapa desberdinen arteko ondorio eta laburpenak lortzea izango da eta horiek baliatuko dira AMIAren taula osatu eta honen ondorioak zehazteko.

3 - Helburuak

Urtarrila eta otsaila bitartean, AMIA taula eta honen ondorioak oinarritzat hartuta, zuzendaritza taldeak plan digitalean ezarriko diren helburuak zehaztuko ditu. Helburu horiek gehienez 2 urteko epean eskuratzeko helburu erreala izan beharko dute.

4 - Ekintzak

Otsaila eta martxoa bitartean, zuzendaritza taldeak, zehaztutako helburuak eskuratu ahal izateko aurrera eraman beharreko ekintzak zeintzuk diren finkatuko ditu. Ekintza horiek SMART metodologiaren logikaren barnean garatuko dira eta zein epean garatuko diren eta jarraipena nola egingo den ere finkatuko da.

5 - Dokumentuaren garapena

Apirila eta maiatza bitartean, dokumentuaren idazketari ekingo zaio, eskeinitako txostenaren baitan. Horrela ekainean aplikatibora igo ahal izateko.

6 - Publikatzea

Ekainaren 16a baino lehenago, digitalizazio batzordearen buruak, IPDa aplikatibora igoko du.

### **Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena**

#### **AZALPENA**

Atal honetan, Proiektu Digitala kokatu behar da Ibaizabal Ikastolaren testuinguru zabal batean. Testuinguru hori ikastolaren Hezkuntza Proiektuan eta Urteko Planean zehazten da. Beharrezkoa da dokumentu horiek bat etortzea eta guztiz osagarriak izatea.

Hau da, IPDa ez du izan behar independentea den dokumentu bat baizik eta ikastolaren kudeaketaren barruko elementu bat baizik.

Proiektu digitala Ibaizabal Ikastolaren kudeaketa orokorrean kokatuko da. Ibaizabal Ikastolaren helburuak zehatz eta argi jasotzen ditu gure Plan Estrategikoak, helburuok ildo estrategikotara eta azpi-helburutara ekarrita. Gainera, Plan Estrategikoaren itzalpean urtero egiten den Urteko Kudeaketa-planak helburu orokorrak lortzeko bidean ikasturte jakin

baterako markatzen diren zeregin eta balorazio-adierazle zehatzak definitzen ditu. Plan Estrategikoan jasota dauzkagun 8 lerro estrategikoei dute finean lotura proiektu digital batek dituen edukiekin. Izan ere, esaterako, gaur egun zail da ulertzen ikasleak bizitzarako ongi prestatuta ateratzeko helburu estrategikoari nola erantzun dakiokkeen dimentsio digitala jorratu gabe. Edo ikastolaren irudia indartzen duten proiektuak nola egin litezkeen ingurune digitala aintzat hartu gabe. Edo langileen izaera ekintzailea eta ikertzailea sustatzeko helburu estrategikoa, edo berrikuntza metodologikoa txertatzeko nola diren egingarri digitalizazioa alboratuz gero. Argi eta garbi, Ikastolan markatuta dauden helburu estrategiko (ia) guztiek dute loturaren bat proiektu digitalak jaso beharreko elementuekin, beraz, digitalizazioa, erronka izateaz gain, Ikastolaren kudeaketan sartuta egongo den ezaugarri saihestezina da.

Hezkuntza-proiektuan bilduta datozen eta Ibaizabalen nortasuna hezurramitzen duten elementuetako batzuek ere lotura izango dute proiektu digitalarekin.

Adibidez, Hezkuntza-proiektuko helburuetako bat hezkuntza integrala bultzatzea da. Ikasle bakoitzaren gaitasunak muturrera eramaten lagundu nahi dugu, ikasleen arteko desberdintasunak errespetatuz. Euskal Curriculumak adierazten dituen eta bizitzarako ezinbestekoak diren konpetentziak lortzeko tresnak ikasleen eskura jartzea da xedea. Azken horren harira, Ikastolak ikasleengan eragin behar dituen gaitasun edo konpetentzien artean konpetentzia digitala daukagu (ikasleak IKT baliabideen erabilera eragingarria, erraza, kritikoa eta arduratsua egiteko gaitzea).

Hezkuntza-proiektuko beste adibide bat da ikasle partehartzaileak nahi ditugula. Horretarako, ezinbestekoa da Ikastola dinamikoa izatea; etengabeko hobekuntzaren ideia barneratuta dugu. Irakasle guztiek proiekturen batean parte hartzea hobetsita dago. Berrikuntza: konpetentzia diziplinarrak, diziplinartekoak eta metadiziplinarrak (konpetentzietako bat baino gehiago batera jorratzeko proiektuak) gelan txertatzea (+ orduz kanpoko ekintzak), metodologia berriak eta aktiboak ezartzea, ikasle-profila, Ikastolako irakasleria ekintzailea eta ikertzailea izatea, ebaluazio-prozesua eta tutoretzako ekintza-plana...

Horretan guztian ere zeresia franko du digitalizazioak.

Eta, azkenik, horrek guztiak ikaslearen irteera-profilean eragingo du.

Hortaz, esandakoa esanda, Proiektu digitala ikastolaren hezkuntza-proiektuarekin bat etorriko da eta ikastolaren kudeaketa-planean integratuta egongo da. Ikastolaren kudeaketa, plan estrategikoan oinarritzen da eta hori urteko planetara hedatzen da. Proiektu digitalak azken bi atal hauetan bere zatia izango du, non plan estrategikotik urteko planera hedatzen diren helburuak zehaztuta izango dituen. Proiektu digitalean definitzen diren helburu eta ekintzak plan hauetan integratuko dira, epe ertainekoak plan estrategikoan eta epe motzekoak (urtebetekoak) urtez-urteko planetan agertuko dira.

Proiektu digitalaren jarraipena urteko planean egingo da eta horrek erakutsiko digu bertan zehazten diren helburuak betetzen diren. Proiektu digitaleko helburuak betetzeak, bai urteko plana nola plan estrategikoaren betetze-mailan eragingo du.

Urteko planak ikastola osoari eragiten dio eta zuzendaritzaren jarraipena eta ebaluazioa dauka, hala nola ikastola-komunitate osoaren berrikuspena (artezkaritza, familiak, langileak eta ikasleak). Hortaz, proiektu digitalean definitutakoak jarraipen zehatza izango du komunitate osoaren bidez.

Hori horrela, ikastolako proiektu digitala erabat integratuta egongo da ikastolako kudeaketa testuinguru orokorrean.



## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabilerearen gaineko hausnarketa.**

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Batxilergoa eta Lanbide-heziketa

1) Etapa bakoitzeko elementu esanguratsuenak, balio altuenak dituztenak eta baxuenak.

Unibertsoa:

Galdetegiaren betetze-maila altuak esanguratsuak izan dira. Zuzendaritza-taldearen kasuan, 3 kide izan arren, galdetegi bakarra bete da, baina azpimarratzekoa da galdetegi bakar hori 3 kideen artean bete dela, 3 kideak elkarrekin adostasunetara iritsita. Hala behar zuela ulertu zelako egin zen horrela. Beraz, prozesuan Zuzendaritza-taldeko 3 kideak -guztiak- egon dira inplikaturik. Hori kontuan hartuta, estamentu guztietan, % 90etik gorakoa izan da parte-hartzea. Oso-oso altua, absolutuki nahiz erlatiboki. Beraz, emaitzen ordezkagaitasuna (hau da, errealitatea interpretatzeko datuek ematen duten talaia) paregabea da.

Balorazio-eskala: 3tik behera baxuak (ahulguneak), 3-4 ertainak, 4tik gora altuak (indarguneak). Horretan oinarrituta, baloraturako arloak oro har kontuan hartuta, Ibaizabal Ikastolan berrikuntza pedagogikorako ingurune digitalaren erabilera da positiboki nabarmentzen den elementua, baina horri egokiturako ebaluazio-irizpideetan dugu beltzunea. Hona hemen zehatzago multzokatuta:

\*Ahulguneak: ebaluazio-sistemak.

\*Indarguneak: baliabide pedagogikoak (horien ezarpena pixka bat gutxiago)

\*Gainerakoak: lidergoa, lankidetzak eta sareak, azpiegitura eta ekipoak, etengabeko garapen profesionala, ikasleen kompetentzia digitala.

-Lidergoaren atalean emaitza ertainak dira, zuzendaritza eta irakasleen iritziak antzekoak dira.

.Altuenak: irakaskuntza-eredu berriak: 4.

.Baxuenak: estrategia digitala: 2,5.

-Kolaborazioa eta sareetan emaitzak erdi mailakoak dira eta antzeko pertzepzioa 3 estamentuetan (zuzendaritza-taldea azpitik).

.Altuenak: elkarlana 3.

.Baxuenak: beste atalak, 2,5.

-Azpiegitura eta ekipamenduak balorazio altua 3 estamentuetan. Indargunea izan daiteke. Nahiko nabarmena da asistentzia teknikoari emandako balorazioa (Zuzendaritzak 5 eta irakasleek 4,2), nahiz eta ikasleek hori ez hauteman (asistentzia ez dagoelako beraiei bideratua, barnera baizik).

.Altuenak: gailu digitalak, 4,3.

.Baxuenak: azpiegiturak 3.

-Etengabeko prestakuntza profesionalean baxuak edo erdi mailakoak dira emaitzak.

.Altuenak: EPP-n parte hartzea, 4.

.Baxuenak: Bizipenak partekatzea, 2,3.

-Pedagogia: laguntza eta baliabideak atalean, altuak dira, zuzendaritza-taldeak oso altu baloratu ditu ikaskuntzarako ingurune birtualak atalak (kopurua, nolakotasuna, sormena, erabilera eta komunikazioa), eta, oro har, nahiko kointzidentek dira gainerako estamentuen asetasun-mailak. Ikastolaren indargunea da.

.Altuenak irakasleentzat: online hezkuntza-bitartekoak 4,4.

.Baxuena irakasleentzat: Baliabide digitalak erabiltzea 3,2.

-Pedagogia: ikasgelan aplikatzea.

.Altuenak: irakasle eta zuzendaritza-kideentzat sormena sustatzea eta ikasleen inplikazioa. 3,4 eta 5, eta 3,5 eta 5, hurrenez hurren. Ikasleentzat ikasleen lankidetzak da altuena (3,8).

-Ebaluazio-jarduketak. Atzeraelikadura egokia dela diote estamentu guztiek, eta atal horri eman diote 3rek baloraziorik altuena atal honetako galderen artean: 4 zuzendaritza-kideek, 3,5 ikasleek eta 3,2 irakasleek.

Ikasleen kompetentzia digitalak, erdi-mailako balorazioak daude estamentu guztietan.

.Altuenak: eduki digitalen sorkuntza 4,0.

.Baxuenak: portaera arduratsua eta besteen lanari aitortza 2,7 (ikasleek ez dute horren baxu puntuatu).



Beste arlo batzuk:

Teknologiaren erabilera mugatzen duten elementuak: irakasleek denbora falta adieazi dute arazo moduan (% 68). Garapen profesionalerako online formazioari puntuazio altua eman diote (4,2) eta Ikastolak beren esku IKT gaietan jarritako barne-formazioa ere begi onez ikusi dute (3,8).

Oso irakasle gutxi erantzun dituzte EEP ataleko galderak (denetan erdiak baino gutxiagok erantzun du). Ez dakigu ziurtasun faltagatik izan ote den. Beste arloetan ez da hori gertatu eta emaitzak nahiko kontudenteak izan dira.

Ikasle gehienek (% 83) badute dispositiboa ikastolatik kanpo erabiltzeko eta ezagutzan ere euren burua nahiko ongi baloratzen dute; aipatzekoa da laguntza gutxi eskatzen dutela gailu digitalak nola erabili behar diren jakiteko. Batez ere, Ikastolatik kanpo, aisialdirako erabiltzen dute teknologia (% 74).

2) Etapa bakoitzean, estamentu desberdinen arteko diferentziak eta adostasunak.

Ondorio argi eta orokorra erazi liteke, eta da normalean joera dugula, geure buruarekin baino, besteekin zorrotzagoak izateko. Galdera desberdinetan eta estamentu desberdinen artean ikusten da joera hori. Esaterako, lidergoari dagokion baloraziorik altuena hain zuzen ere lider kontsidera litekeenak eman dio; hau da, zuzendaritza-taldeak. Ikasleen beharretara moldatzeko duen gaitasunari irakasle-taldeak eman dio puntuaziorik altuena. Eta ikasleek beren portaera seguru eta arduratsuaren gainean duten iritzia eta informazioaren kalitatea ziurtatzeko darabiltzaten mekanismoei buruz duten iritzia altuak dira konparatiboki. Beraz, datuei nolabaiteko zuzentzaileak aplikatu beharko litzaizkieke zenbait kasutan, seguruenera.

Atal hau jorratu aurretik, aipatu beharra dago etapak ez daudela desberdinduta. Izan ere, Ibaizabal Ikastolan etapa bakarra dugu, derrigorrezko irakaskuntzatik aurrerakoa soilik. Zehatzago esanda, Batxilergoa eta Lanbide-heziketa dira Ibaizabal Ikastolak eskaintzen dituenak. Hortaz, ez dagokigu etapen arteko bereizketa egitea. Bai, ordea, estamentuen artekoa, eta hori da jarraian islatu duguna:

DESBERDINTASUNAK: (>1 tartea)

Orokorrean, nahikoa desbideratze ematen da balorazioetan; ez daude balio jakin batzuen inguruan kontzentratuta estamentu desberdinen puntuak. Hori normala izan liteke, kontuan hartuta estamentu bakoitzaren ikusmira eta izaera desberdinak.

.A3 irakaskuntza-modalitate berriak: zuzendaritzak 4 eta irakasleek 3.

.C2 gailu digitaletan zuzendaritzak 5 eta irakasleek 3,7 puntuatu dute (irakaskuntzarako gailuetan eta ikasketarako gailuetan berdintsu).

.D2 etengabeko garapen profesionalean partaidetza desberdin ikusi dute zuzendaritzak eta irakasleek: 4 eta 3 hurrenez hurren. Ikastolaren trebakuntza-plana osatzeko langile-taldearen iritzia kontuan hartzen du zuzendaritzak (egindako ikastaroen balorazioa eskatzen zaie lankideei, beharrian formatiboak identifikatzeko galdetegiak bidaltzen zaizkie, trebakuntzara bideratu beharreko ordu-kopuruaren inguruan adostatsunetara heltzeko ahalegina egiten da, barne- eta kanpo-trebakuntza kudeatzeko akordioa dago...), baina badirudi oraindik badagoela zer hobetua arlo honetan.

.F3 teknologia digitalekin sormena bultzatzea eta F4 pedagogian ikasleen inplikazioa ez dituzte estamentu guztiek berdin ikusten. F3n zuzendaritzak 5 puntuatu du, irakasleek 3,4 eta ikasleek 3,3; eta F4n 4, 3,5 eta 3 izan dira balorazioen batezbestekoak hurrenez hurren.

ADOSTASUNAK: (<0,5 tartea)

.A2 Irakasle-taldearekin baterako estrategiaren garapena: irakasleek eta zuzendaritza-kideek antzeko balorazioa.

.B3 lankidetzak-kultura erakunde bertan eta kanpora. Bat dator irakasle-taldearen eta zuzendaritza-taldearen balorazioa. Ikastolen Elkartearen parte izateak arrazoitzen duela uste dugu, hein batean behintzat.

.H ikasleen kompetentzia digitalaren inguruko 8 galderetan oso gertu daude ikasleen iritzia, irakasleena eta zuzendaritzarena. Salbuespena H7 galdera da, izatekotan (eduki digitalak sortzea); zuzendaritzak 5 eman dio, eta ikasleek eta irakasleek 3,5. H3 Portaera arduratsuan irakasleek eta zuzendaritza-kideek desberdin ikusten dute ikasleen aldean; eta H6 besteen lanari balioa ematea ere aldea dago ikasleen eta gainerakoaren artean. Baina, esan bezala, arlo honetan, bestela, bata besteagandik gertu daude batezbestekoak.

3) Etapa desberdinen arteko ondorioak edo laburpenak, etapen arteko desberdintasun eta adostasunak adieraziz.

Aurreko atalean esan bezala, aipatu beharra dago etapak ez daudela desberdinduta. Izan ere, Ibaizabal Ikastolan etapa bakarra dugu, derrigorrezko irakaskuntzatik aurrerakoa soilik. Zehatzago esanda, Batxilergoa eta Lanbide-heziketa dira Ibaizabal Ikastolak eskaintzen dituenak. Hortaz, ez dagokigu etapen arteko bereizketa egitea.

## AMIA analisisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

### Faktore negatiboak

#### Ahuleziak (barne-faktoreak)

Berrikuntza pedagogikoaren araberako ebaluazio-sistemak definitzea eta ezartzea.

Baliabide pedagogikoen ezarpena indartzea.

strategia digitala ongi definitzeko premia.

Irakasleek ikasleen arteko elkarlana hobetu daitekeela ikusten dute.

Langile-taldeak denbora gehiago izatea digitalizazio-eskakizunei erantzuteko.

Gailuen eta sistemen nolakotasuna eta kopurua ez dira adostasunez baloratzen estamentu desberdinetan.

#### Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Egoera ekonomikoa gero eta larriagoa eta horrek digitalizazio-planari egin diezaiokeen kaltea.

Desdigitalizazioaren aldeko ekimenak gizarte-talde batzuetan.

Batxilergoan bereziki, hezkuntza-sistemak ikuspegi tradizionala lehenesten du, eta horrek berrikuntza-proiektuak, bestelako ebaluazio-modalitate batzuk eta konpetentziakako lanketa zailtzen du.

### Faktore positiboak

#### Indarguneak (barne-faktoreak)

Baliabide pedagogikoak: berrikuntza pedagogikoa oso ongi txertatuta eta barneratuta dago Ikastolaren kulturaren: ikas-material aurreratuak erabiltzearekin ohituta, irakaskuntza-modalitate berrietarako prest, e.a.

IKTetan oinarritutako edo IKTak darabiltzaten proiektu akademikoak, esperimentazio-ekintzak, erronkak... egiten dira. Teorizazioa exekuziora edo praktikara eramaten da, eta prozesu gidatuak dira maiz: pilotajea + monitorizazioa. Horretan laguntzen du Ikastolen Elkartearen parte izateak (EHIK), eta kolaborazioa, informazio-trukea, lankidetzaren proiektuak... errazten ditu horrek.

Ikastolan etengabeko formazio-prozedurak daude.

Ikasleen euren beren gailu digitala ekarri ahal izateko moldatu da Ikastolaren azpiegitura ikasturte honetan.

Azpiegitura egokia: gailuak eta Internet-konexioak, besteak beste. Baina zenbait kasutan, zalantza dago, horregatik, hobetzeko aukera bera ere indargunea da (hauteman da eta plangintzatuta dago zuzentzeko/hobetzeko).

Hezkuntza-komunitatearekin komunikazioa oso ongi baloratuta dago: aplikazioak, plataformak, online buletina, posta elektronikoa, sare sozialak...

Teknologiaren erabilera nahiko hedatuta dago ebaluazio-prozesuetan.

#### Aukerak (kanpo-faktoreak)

Europak Next Generation funtsen bitartez digitalizazioan aurreratzeko eskaini duena.

Digitalizazio-plana Europako markoaren baitakoa izatea (koherentzia, erreferentzialtasuna...).

Digiprest ikastaroaz baliatzea irakasleen konpetentzia digitalaren zertifikazioak lortzeko.

Hezkuntza-komunitateak gailu digitalak ditu; orokortuta dago teknologia ('unibertsalizatuta'). Hala ez den kasuetarako, Ikastolak lagapen-sistema abiatu du aurrean.

### **Autoebaluazioaren ondorioak**

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

### **Indarguneak** optimizatu **aukerak** areagotzeko

Irakaskuntza-eredu berriak inplementatzeko aukera handia da Ibaizabal Ikastolan, horretan bide luzea eginga duela ikastolak. Estrategia digitala zehazteak lagunduko du aukera hori hauspotzen.

Digitalizazio-planaren garapenak estrategia digitala fintzen eta hobetzen lagunduko du.

Nahiz eta azpiegitura egokia izan, Next Gen funtsak erabil daitezke ekipamenduak berritzeko eta falta diren etapetan txertatzeko.

Teknologiaren erabilera hedatuta badago ere, irakasleen prestakuntzaz baliatuta akreditazio ofiziala lor daiteke.

### **Ahuleziei** aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Irakasleen prestakuntza aprobetxatu ikasleen kompetentzia digitalaren garapenean dauden hutsuneak betetzeko eta hauen arteko lankidetzara hobetzeko.

Euskal Herriko Ikastolen mugimenduaren parte izateak digitalizazioaren garapenari eta hortik ondorioztatutako egitasmoen lanketari lagunduko digu.

### **Indarguneak** optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Estrategia digital egokia eta hezkuntza-komunitatearekin komunikazio egokia izatea, desdigitalizazioaren aldeko mugimenduak indargabetzeko baliagarria izan daiteke, sortuko balira.

Azpiegitura eta baliabide egokiak izatea, krisi ekonomiko baten aurrean posizio egokia izateko baliagarria da, inbertsioak egiteko zailtasunak egon arren, ikastolaren digitalizazio-prozesuarekin aurrera jarraitzeko aukera egongo delarik (digitalizazioa estrategikotzat hartzen dugu).

Hezkuntza Lege berriek ikasleen gaitasunetan eta kompetentzietan enfasi gehiago jarriko dutela dirudi, eta hori lagungarria izango da digitalizazioan sakontzeko eta horretara egokitutako ebaluazioa aplikatzeko.

### **Ahuleziei** eta **mehatxuei** aurre egin

Egoera ekonomiko larriak, behar den denbora edo liberazioak eskaintzeko zailtasunak eman ditzake, digitalizazio-prozesuetan laguntzeko.

Nahiz eta gailu digitalak orokortuta dauden, digitalizazioa oraindik entitateetan garatzeke dagoen kultura da (modu antolatua eta plangintzatuan, emaitza jakin batzuk lortzera bideratua eta SMART adierazle-sistema batekin lagunduta jarraipen objektiboa egin ahal izateko).



### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
LG2. Aro digitaleko ikaskuntzarako estrategia inplementazio-plan batean oinarritzen da		
Deskriptorea	Epea	
LG 2.5 Helburu bikoitzak daude: lehendik dagoen hezkuntza- hornidura modernizatzea eta aukera berriak eskaintzea	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Gaitasun digitalerako inplementazio-plan errealista bat egina izatea Ikastolak, lehentasunak argi ezarrii	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasgelan baliabide digitalen erabilera handitzeko harremanak egitea argialetxe eta hornitzaileekin formatu digitalean dituzten bitartekoen berri jasotzeko, eta irakasleek irakaskuntza-ikaskuntza plataformen gainean sor ditzaten eragitea.	Informazio-iturriak: irakasleak, egungo egoeraren eta etorkizuneko diagnostikoa, galdetegiak... Ikasgelan baliabide digitalak erabiltzen dituzten irakasleen kopurua ezagutzeko etapa bakoitzean, tresnen nolakotasuna, hutsuneak identifikatzeko...	IKT dinamizatzailea	2023/12/31	Prozesuan (%40-59)
Plataforma digitalaren barruan jarduerak sortu eta ikasleekin erabiltzen dituzten irakasleen kopurua handitzeko, sentsibilizazioa eta formazioa sustatzea.	Barne- zein kanpo-formazioa.	Formazioaren arduraduna.	2024/06/30	Prozesuan (%40-59)
Teknologia digitalak erabiliz hobetutako jardueren proportzioa handitzea.	Norberak sortutako baliabide digitalak. Kanpoko enpresei eskuratutako baliabide digitalak. Ikastolen Elkartearen orientazioa (berrikuntza-egitasmoak). Unitate didaktikoen datu-basea.	Berrikuntza-lantaldea. Klaustroa.	2025/06/30	Prozesuan (%40-59)

## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

### Helburua

--

### Deskriptorea

### Epea

--	--

### Adierazlea

### Mota

### Helmuga

--	--	--

### Ekintzak

### Baliabideak

### Arduradunak

### Epea

### Egoera

--	--	--	--	--

## GP Garapen profesionala

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

## EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua	
Ebaluazio-formatuak hobetzea Batxilergoan eta Lanbide-heziketan ingurune digitalek eskaintzen dituzten aukerak erabiliz, ikasleei itzulerako informazioa (feedback-a) garai, pertsonalizatuta eta modu esanguratsuan emateko.	

Deskriptorea	Epea
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	2025/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
Edukiak memorizatzetik, etorkizunerako beharrezkoak diren gaitasunak geureganatzera igaro beharra	Ehunekotan	% 80
Ebaluazioari dagokionez, ikasgaiak transbertsalak izan behar dira eta kompetentziak ebaluatu beharra	Bai/Ez	transbertsalak/ kompetentziak

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Kompetentzietan hezteko, ebaluazio-sistemak egokitzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Egungo ebaluazio-proposamenak</li> <li>Zuzendaritza-taldearen bilerak</li> <li>Beste ikastegi batzuetako ereduak eta erreferentziak (batez ere aurreratutakoak eta Ikastola direnena).</li> </ul>	Berrikuntza-lantaldea. Zuzendaritza-taldea. Klaustroa.	2023/06/30	Prozesuan (%80-99)
Irakaskuntza-eredu berrietan eta, batez ere, estrategia digitalean sakontzea.	IPD Ikastolen Elkarte Digitalizatorako mentorea	IKT dinamizatzaila	2025/06/30	Prozesuan (%40-59)
Ikasle-profilaren ezaugarriak ebaluazio-irizpideekin eta lorpen-adierazleekin deskribatzea.	Ikasleenganako eta ikasleengandiko feedback-a. Ebaluazio-bilerak.	Zuzendaritza-taldea. Irakasleen klaustroa.	2025/06/30	Prozesuan (%80-99)
Ikastolako proiektu eta ekintzak ikasle-profilaren ezaugarrien arabera antolatu eta ebaluatzea.	Proiektuen jarraipen-bilerak. Hobekuntza-zikloak. Proiektuen adierazle-panelak. Barne-galdetegi eta inkestak.	Zuzendaritza-taldea. Proiektuen arduradunak.	2024/06/30	Hasita (%1-19)
Ikastolaren jarduera integrean ikasle-profileko ezaugarrien irismenaren argazkia zein den etengabe behatzea eta beharrezko doiketak eta hobekuntzak inplementatzea.	Hezkuntza-proiektua. Errubrikak. Ebaluazio-bilerak.	Zuzendaritza-taldea. Artezkaritza-kontseilua.	2025/06/30	Hasita (%1-19)

Helburua	
Jakintza-arlo espezifikoaren gainean ikasle kompetenteak hezteak.	

Deskriptorea	Epea
EJ 3.1 Ikaskuntzaren analisia estrategikotzat hartzen da	2025/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
Emaitza akademikoak izango dira adierazle onak (promozio-datuak, espedienteak eta USE).	Zenbakizkoa	EAEko datuen gaitetik kokatzea



Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Diziplinetan kompetentzietan oinarritutako metodologia ezartzea, kompetentzia espezifikoen eta ikasle-profilaren –bien– gaineko planifikazioa, lanketa eta ebaluazioa egiteko diziplina bakoitzaren baitan eta diziplinartean ere.	Diziplina guztietarako kompetentzietan oinarritutako metodologia planifikatzen hasita gaude ikasturte honetan (LOMLOEren markoaren baitan): diziplina bakoitzarentzat kompetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak, irteera-profilarekin loturak, oinarritzko edukiak, kompetentzietan oinarritutako programazio-ereduak, azterketa-ereduak, talde-lan ereduak... Diziplinarteko jardueren bidez aldi berean diziplina desberdinetako kompetentzia espezifikoak landu eta ebaluatuko ditugu. Diziplinarteko jarduerak berregin beharko ditugu lege-testuinguru berrira egokitzeko, eta praktikan jarri.	Berrikuntza-lantaldea. Zuzendaritza-taldea.	2025/06/30	Prozesuan (%80-99)
Ikasle bakoitzaren beharrian espezifikoei erantzuteko gai diren planifikazio, metodologia eta neurriak txertatuta izatea diziplinek.	Hezkuntza-errefortzurako saioak, orientazioa, tutoretzak (bakarkakoak nahiz kolektiboak), emaitzak hobetzeko aukerak, Unibertsitaterako sarbide-azterketa prestatzeko eskolak (SPS) eta abar.	Tutore koordinatzaileak (Batxilergoan). Tutoreak.	2025/06/30	Prozesuan (%20-39)
Metodologiaren gaineko etengabeko balorazioa eta hobekuntza sustatzeko ekintzak.	Klaustro-bilerak. BatxiLab. Ikasturtearen bukaerako elkarrizketa pertsonalak irakasleekin (balorazio-aktak eta autoebaluazioak).	Zuzendaritza-taldea.	2025/06/30	Prozesuan (%40-59)

## EC Edukiak eta curriculuma

### Helburua

--

### Deskriptorea

### Epea

--	--

### Adierazlea

### Mota

### Helmuga

--	--	--

### Ekintzak

### Baliabideak

### Arduradunak

### Epea

### Egoera

--	--	--	--	--

## EN Elkarlana eta networking-a

Helburua		
Lankidetzan jardutea da biderik onena Ikastolak noranzko egokian joaten asma dezan, batetik, besteengandik erreferentziak eta orientazioa jasoz, eta abiatuta dituen digitalizazio-prozesuak urrunago eraman ditzan, bestetik. Ikastolen Elkartean partaide izatea egoera paregabea da lankidetzaz-aurerak ustiatzeko: berdinaren artean, ekosistema aurreratua izatearen abantailez baliatuz, e.a.		
Deskriptorea	Epea	
EN 3.1 Ezagutza elkarteen bidez trukatzeko konpromisoa agerikoa da	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 3.1 A2 Ikastetxeak gutxienez konpetentzia digitala lantzeko proiektu instituzional batean parte hart	Zenbakizkoa	Gutxienez 1 ikasturtero

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Konpetentzia digitalaren barruan portaera arduratsuagoa izateko ekintzak.	Bizikidetzaz-plana eta beronen jarraipen-mekanismoak.	Bizikidetzaz-proiektuaren arduraduna. IKT dinamizatzailea.	2024/06/30	Prozesuan (%40-59)
Irakasleek denbora behar dutenez teknologiaren erabileran trebatzeko, 2023/24 ikasturtean berriaz aurreikusiko da lanaldiaren barruan tarte bat halakoen inguruko barne-gogoeta eta -formazioa ahalbidetzeko. Beharrezkotzat joz gero, aurrekoaren ondorio modura, kanpo-formazioa ere bidera liteke ondoren.	Trebakuntza-plana. Trebakuntzari buruzko asegarratasun-galdetegiak.	Formazioaren arduraduna. Klaustroa.	2024/06/30	Detektatua
Ikastolen Elkartea osatzen duten ikastegiekiko harremana bultzatuko da batez ere (lehenengo geruza), eta konpetentzia digitala lantzeko helburuz Ikastolen Elkartetik bultzatzen/ proposatzen diren proiektuetan partaidetza aktiboa izango du Ibaizabal Ikastolak. Horrez gain, aparteko ikastetxeekin edota eragile interesgarriekin ere lanketa jorratuko da (2. geruza).	Aliantza-plana. Elkartegintza-sarea eta beronen irakasle-arduraduna. Ikastolen Elkartea. eTwinning elkartruke-programak.	Zuzendaritza-taldea. Irakasle inplikatuak.	2024/06/30	Egina
Talde-proiektuetan parte hartzea ahalbidetuko duten azpiegitura-sistemak egokituko ditu Ikastolak, eta horietan egokienak diren erabakiak hartzen jarraituko du (softwareari dagokionez, segurtasunari, biltegiratzeari eta atzitzeari, baliabide materialak, konexioak eta estaldurak, abiadura, e.a.).	Inbertsio-plana.	Artezkari-taldea. Zuzendaritza-taldea. Informatika-hornitzailea.	2024/06/30	Prozesuan (%60-79)

## AZ Azpiegiturak

### Helburua

--

### Deskriptorea

### Epea

--	--

### Adierazlea

### Mota

### Helmuga

--	--	--

### Ekintzak

### Baliabideak

### Arduradunak

### Epea

### Egoera

--	--	--	--	--

## IB Ikastetxeko berariazkoak

### Helburua

--

### Deskriptorea

### Epea

--	--

### Adierazlea

### Mota

### Helmuga

--	--	--

### Ekintzak

### Baliabideak

### Arduradunak

### Epea

### Egoera

--	--	--	--	--



## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	LG2. Aro digitaleko ikaskuntzarako estrategia implementazio-plan batean oinarritzen da				Prozesuan (%40-59)	<p>IPD helburua &gt; aro digitaleko ikaskuntzarako estrategia implementazio-plan batean oinarritu dadin lortzea. Ikasgelan baliabide digitalen erabilera handitzeko harremanak egitea argitaletxe eta hornitzaileekin.</p> <p>Adierazlea &gt; Argitaletxe eta hornitzaileekin harremana egin da/ez da egin</p> <p>Ebaluazio-emaizta &gt; Paperezkotik digitalerako jauzian sakondu da 23/24 ikasturtean. 2 neurritan bideratu da asmo hau: batetik, argitaletxeekin testu-liburuak ordezkatzeko bertsio digitalak arakatu dira eta hainbat implementatu dira, eta, bestetik, ekoizpen propioko material digitalak sortu dira. Bigarren honen barruan lan-eskerga egin da: unitate didaktikoak digitalizatu dira irakasgai guztietan, plataforma digitalak jarri dira ikasleen esku ez bakarrik edukiak jasotzeko baizik eta baita ebaluazioa eta feed back ahalbidetzeko ere, e.a. Horrezaz guztiaz gain, beste maila batean badago ere, Lanbide Heziketan komunikazio-sistema handigarrien inguruko formazioa eta gogoeta egin da. Azken honek ez dakar derrigor digitalerako trasbasea, baina tablet eta antzekoetan piktogramak-eta erabiltzeak gure ikasleei ekarriko liekeen abantailaz jardun da, kontuan hartuta gure HH goi-mailako ziklokoko ikasleak etorkizuneko hezitzaileak izango direla gainera.</p> <p>Honetan guztian sakontzea da etorkizunerako asmoa, eta kalitate handiagoz jarduteko prozedurak abiatzea, Plan Estrategikoko lerroetan jasota daukagunaren bidetik. Edukiak digitalizatu baino, edukiak ingurune digitalerako berariaz sortzera igaro beharra daukagu (jada egiten badugu ere, areago). Eta ingurune digitalen egungo funtzionalitateak areago ustiatzen jarraitzeko joera izan behar dugu barneratuta. Hau hurrengo helburuarekin ere lotuta dago.</p>
II						

GP						
EJ	Ebaluazio-formatuak hobetzea Batxilergoan eta Lanbide-heziketan ingurune digitalek eskaintzen dituzten aukerak erabiliz, ikasleei itzulerako informazioa (feedback-a) garaiz, pertsonalizatuta eta modu esanguratsuan emateko.				Prozesuan (%40-59)	<p>IPD helburua &gt; aro digitaleko ikaskuntzarako estrategia implementazio-plan batean oinarritu dadin lortzea. Plataforma digitalaren barruan jarduerak sortu eta ikasleekin erabiltzen dituzten irakasleen kopurua handitzeko, sentsibilizazioa eta formazioa sustatzea.</p> <p>Adierazlea &gt; Kopurua neurtu eta alderatu. Lortu da / ez da lortu</p> <p>Ebaluazio-emaizta &gt; Orain arte, classroom edo, aurretik, moodle izan denaren lekuan, plataforma propioen aldeko apustua egiten hasi gara, EHren abagunea probestuz. 'Saioka' plataforman hainbat jarduera akademiko diseinatu eta esperimintatu dira. Hau aurreko helburuarekin ere lotuta dago (ikus). Hobekuntza-aukerak ere aurreko helburuari lotuta zerrendatu dira. Zalantzarik gabe, potentzialtasun handiko helburua da hau eta bide luzea izango du Ibaizabal Ikastolaren hurrengo urteetako estrategian.</p>
EJ	Jakintza-arlo espezifikoaren gainean ikasle kompetenteak hezteak.				Prozesuan (%40-59)	<p>Ebaluazio-emaizta &gt; Berrikuntza akademikoarekin eta ebaluazio hezigarriarekin/hezitzailearekin lotuta dago helburu hau zalantzarik gabe. Horretarako, 2 lldo Estrategiko ditu osorik eta berariaz pentsatuta eta indarrean Ibaizabal Ikastolak bere Plan Estrategikoan eta Urteko Planean. Helburu hau orokorrean dago formulatuta, baina hemengo gainerako helburuek asmo hori zehatzago jasotzen dutela kontsideratu dugu. Hartara, gainerako helburu horiez txosten honetan egiten dugun balorazioak azaltzen du honakoaren gaineko gure eskuhartzea eta aurrera begirako proiektzioa.</p>
EC						

EN	<p>Lankidetzan jardutea da biderik onena Ikastolak noranzko egokian joaten asma dezan, batetik, besteengandik erreferentziak eta orientazioa jasoz, eta abiatuta dituen digitalizazio-prozesuak urrunago eraman ditzan, bestetik.</p> <p>Ikastolen Elkartean partaide izatea egoera paregabea da lankidetzaz auzkerak ustiatzeko: berdinaren artean, ekosistema aurreratua izatearen abantailaz baliatuz, e.a.</p>				<p>IPD helburua &gt; Lankidetzaz eta networking-a. Konpetentzia digitala lantzeko, gutxienez proiektu instituzional batean parte hartzea. Ikastolen Elkartetik bultzatzen/proposatzen diren proiektuetan partaidetza aktiboa izango du Ibaizabal Ikastolak.</p> <p>Adierazlea &gt; Proiektu instituzional 1 egin da: bai/ez</p> <p>IPD helburua &gt; lanaldiaren barruan tarte bat hartu irakasleen artean teknologiaren erabileraren inguruan barne-gogoeta eta -formazioa ahalbidetzeko.</p> <p>Adierazlea &gt; Egin da / ez da egin</p> <p>-----</p> <p>Ebaluazio-emaizak &gt; Konpetentzia digitalari buruzko Digiprest ikastaroan hartu zuten parte 22/23 ikasturtean irakasle guztiek (A2) eta 23/24an B1 eta B2 mailatan trebatzeko sustapena egin da, baita lortu ere maila oso handian. Horretarako, formazio-plangintza egokitu da baita 23/24 ikasturtean ere, lan-orduetan sartzeko akreditazio-sistema hau. Horrek abagune hobea emango digu 24/25 ikasturtean 'eskola adimentsua' programan sartzeko. Azken horren barruan, eta EHL mentorizatuta, pentsaera konputazionala, programazioa eta robotika jorratuko ditugu. Arlo guztiak dira hobekuntzarako estrategikoak. Hirurak hala hirurak --Digiprest formazioak, B1/B2 kreditatze-sistemak eta 'eskola adimentsua' programak-- sarean gorputzutako egitasmoak dira, ez bakarrik Ibaizabal Ikastolan taldean landu direlako, baizik eta baita EHLren babespean aldi berean milaka lagun barnebildu gaituzten ekimenak izan direlako (eta izango direlako) ere. Eskuhartzeok garatzeko, ezinbestekoa izan da diagnostikoa egitea, eta, azken horretarako, funtsezkoa egoerari buruzko gogoeta. Gogoeta hau klaustro-mailakoa izan da batez ere eta proiektuen barruan kokatu da, berezko atal modura. Horrez gain, kooperatibaren zuzendaritza-mailan ere gogoetarako tarteak hartu dira, asko IPDaren jarraipenerako eta honako urteko planeko IPD helburuen betetze-maila erdiestera bideratuta, esaterako.</p>
AZ					<p>Prozesuan (%40-59)</p>



IB					
----	--	--	--	--	--